

OSPAKIZUNA EGUNKARIAREN ALDEKO EGUNA MAIATZAREN 24AN
GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN · KULTURA MAZZANTINI ELKARTEAREN ZEZENKETA

BARREN

ASTEKARIA



MAIATZAK 25 UDAL HAUTESKUNDEAK

Egin al duzu aukera?

"EZ DAGO ALKATERIK, EZ ERREGERIK, JAUNAREN LEGEA ALDATU DEZAKEENIK"
(esaera zaharra)

GREBIOEN GIDA

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
11 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
Er 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
IT 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
Ir 656 78 78 59

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
Tr 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
w 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
u 943 74 03 96

ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g
943 74 43 47

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
u 943 74 17 61
u 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
zr 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
121 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
17 943 75 50 62
u 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
u 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
1r 943 74 07 89
tr 608 14 30 40

PINTUR-ARTE

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
u 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
u 943 74 04 40
u 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
17 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
u 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
tr 943 74 09 02
tr 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
17 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
u 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
17 943 74 29 87
tr 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabilioia
Ir 943 74 30 94

40 URTE 40 ISTORIO

 ELGOIBARKO IZARRA



18

San Anton egunean, ODEOIRA!

Bai, San Anton eguna egun garrantzitsua izaten zen Elgoibarko Izarrarentzat eta bere bueltan zebiltzan herritarrentzat. Gazteenok, akaso, ez duzue jakin ere egingo Odeioia zer den; Santa Ana kalean zegoen zine areto zoragarri bat zen. Mila lagun inguru sartzen ziren eta oso ondo prestatuta zegoen. Bertan, zinea eze ezik, antzerkia, jaialdiak, kantaldiak eta beste hamaika ikuskizun ere izaten zen elgoibartarron gozamenerako. Hura bota zuten eguna ere!

Esan bezala, San Anton egunean gainezka egiten zuen Odeoiak. Plaza Handira arteko kolak ikustea ez zen batere arraroa izaten. Oholtza gainean, berriz, Elgoibarko Izarraren eskoletan zebiltzan ume eta gaztetxoak ikus zitezkeen.

Euskal dantzek leku garrantzitsua izaten zuten jaialdian. Kolorea eta mugimendua ematen zioten jaialdiari. Baletokoak hanka puntetan irteten zirenean, berriz, jendea adi-adi egoten zen beraiei begira. Fina izaten zen. Gero, txistulariak entzuleen belarriak gozatzear arduratzen ziren. Izaten zen gitarra hotsik ere, antzerki txikiren bat, kantuak. Denetik izaten zen Odeoian, eta jende oso gustura irteten zen sasoi hartan San Anton egunari zegokion bisigua jateko amorratzen.

Ume eta gaztetxoak ziren jaialdiko protagonistak eta urtean zehar ikasitakoa jende aurrean erakusteko eguna izaten zen. Umeak urduri, irakasleak ere arduratuta eta gurasoak butaketan kabitu ezinik.

Felix Etxeberriak esan digunez, 1966an hasi zen Elgoibarko Izarra Odeoiko jaialdia antolatzen. Azken jaialdia, berriz, 1973 urtearen bueltan izango zela aitortu digu.

Felix Etxeberria eta Inanñi Larrañaga

iritzial



Botoaren eraginkortasunaz

Hauteskunde erabat antidemokratikoak ditugu gainean: PPK, PSOEek, epaile eta komunikabideen laguntzarekin Ezker Abertzaleko zerrendak legez kanpo jarri ditu. Tripartitoko alderdiek aho txikiarekin ados ez daudela diote, baina ez dute zalantzan jarri hauteskunde prozesu guztia eta egoeraz baliatu nahi dute elektoralki gizentzeko. Ertzainak bidaltzen dituzte AuB-ren ekitaldiak egin ez daitezenean, AuB-ko militanteak atxilotzen ditu botoak banatzeagatik, baina gero boto eraginkorra predikatzen dute " Madrili aurre egiteko". Nola? Zertarako balio izan dute orain dela 2 urte lortutako 600.000 boto horiek?

Lizarra-Garaziren akordioa izan zen herri honetan ilusio gehien sortu duen ekimena azken urte hauetan. Gatazka politikoaren ezaugarritzea, mugarik gabeko negoziazioaren beharra eta euskaldun guztion erabakiaren errespetuen inguruan, herri honen sektore zabalak batu ziren. Pentsaezina zena 97an posible izan zen 98an. Eta hau Ezker Abertzaleari esker gertatu zen. Euskal Herriak bide berriak behar ditu herri bezala agertu nahi badu XXI. Mendean. Gaur egungo erropek (konstituzioak, autonomi estatutuak, amejoramenduak) estutu egiten dute erabat. Egunkariak itxi egiten ditu, alderdi politikoak legez kanpo jarri, euskara desagertarazi nahi du, euskal kultura ezabatu.

Euskal Herriak bide berriak ezinbestean behar baditu, Ezker Abertzalea bultzatu behar da bide hori egiten jarrai dezan. Botoaren balioa ez du ematen Espainiako legediak, baizik eta hoiengan atzean dauden asmo eta borondateek. Horra hor bere eraginkortasuna!

Pello Mendizabal

Kexak	5
motz motz	6
gehigarria	1
kiRolAk	20
aGenda	24

EUSKAL HERRIA AURRERA

Urduri jarri dira, bai Espainol Faxistak baita ere beraien burua abertzaleztat duten (PNV-EA) alderdi erregionalista eta kolaboratzaileak. Euskal Herriak bere hautua egin du ezker abertzaleak bultzatuta eta eraso guztien gainetik (Egunkaria, Udalbiltza, ilegalizazioa, atxiloketak, torturak) Eraikuntza Nazionalen bidea egingo du. Euskal Herria aurrera bai edo ez, ez dago beste erabakirik, independetzaruntz, ez interdependentziaruntz. Subiranotasuna, ez subiranotasun konpartituta. Errepresioaren kolpeak salatu eta arlo horretan borroka egin behar da, baina baita indarrak metatu ere, Euskal Herriak behar dituen egitasmo sozial-politiko, kultural, e.a. lortzeko.

Gure aberritik hain urruti aurkitzen naizen ziega honetatik, elkarrizketa politikoa konfliktuaren askabidea eta autodeterminazioaren eskubidea bide demokratiko bezala, non euskaldunok libreki gure etorkizuna erabakiko dugun, alde zaudeten elgoibartar guztiei Einbiou eta AuB-rentzat eskatzen dizuet bozka. Bozka baliagarri bakarra delako. Bozka bat bera ere ez (mitinak zapuztu, jendea kolpatu, bozkak lapurtu, atxiloketak burutu eta estatuaren morroi sumisoak) direnentzat (PNV-EA). Autodeterminazioaren bidean aurrera Einbiou.

Fernando Bert Arretxea (Euskal Preso Politiko elgoibartarra)

HAUTESKUNDEAK - U.T.E. ALZOLA - UDALETXEA

Ia bi urte igaro dira, "U.T.E. ALZOLA" empresa eraikitzaileak (Altzolako lehengo apaitezgia), Udaletxearen baimenarekin, ur mineraleko iturria zerbitzutatik kanpo utzi zuela. Iturriak 360 urtetan zehar, bertan jartzen zuenez 1643. urtean eraiki eta 1910. urtean berriztua izan zenak, ez zion utzi ura emateari, orain dela 2 urte arte. Baina orain kasualki, hauteskundeetarako 15 egun falta direla, martxan jartzera doaz berriro.

Zergatik? Zein da arrazoia? Edo zein izan da gure errua, 2 urtetan zehar zerbitzu publiko hau gabe egoteko? Ezin ahal zen martxan jarri askoz lehenago, etxeak egiten ziren bitartean eta inguruak aldamioren bitartez babestuz?

Ez diezagutela esan orain ez zela posible, ez da hain urruti joan behar frogatzeko, nola kaletik ibil daitekeen eraikitzen ari diren bitartean.

Agian Altzola salbuespena da ere enpresa eraikitzaileentzat?

Ikusi duguna ikusita, horrela ematen du, zeren eta nahi izan dutenean eta nahi izan duten aldi guztietan bidea moztu dute, inolako oztoporik gabe, eta noski, inolako abisurik gabe!

- Zein interes daude U.T.E. ALZOLA eta Udaletxearen artean, nahi izan dutena eta hainbeste denboran zehar nahi dutena egiten uzteko? Zergatik onartzen da orain lehen aipatutako iturria tokiz aldatzea? Kasualki behin eta berriro enpresa eraikitzailearen mesederako? Nori egiten zion traba zegoen tokian? Guk daldguna, inori! Are gehiago, iturria hobeto zegoen lehengo tokian, aldamenen zuen egurrezko eserlekua eta guzti.

Eta era honetan, berriro ere onuraduna enpresa eraikitzailea dela ikusten dugu, atzealdean duen lokalaren sarrera libreago gelditzen zaiolako.

Agian, Udaletxeak eskainitako kontzesioen ordaina da, orain arte itxaron izanaren arrazoia?

Argitu diezagutela hainbeste ezustekoren arrazoia, edo bestela, gure susmoak bide onetik doazela pentsatuko dugu!

Altzolalde

Urruzunoren begi ezkutua

Zure bakeroetako kremailean



Uste dut ni nintzela historiako klase luzeetan aspertzen ez zen bakarra. Amadeo Saboyakoaren agintalditik Francoren diktadura artean poliki-poliki biluzten zintudan nik...pentsa, Francoren diktadura motxegia egiten zitzaidan maiz...askotan, galtzetako botoiak begirada hutsez askatzen ari nintzaizun momentu berean hatza nigana zuzendu eta "Amaia, ea, nortzuk ziren Txiki eta Otaegi?" galdetzen zenidan begietara zuzen begira. Eta ni bat batean gorritzen nintzen, nahi gabe, nire fantasiatako protagonista izan zen zure hankartera ihes egiten baitzidan begiradak eta soa bertatik apartatu ezinik, hitzak zure bakeroetako kremailean korapilatzen zitzaizkidalako. Hitz biziosoak. Ni bezalakoak. "Ze, gaur ere gaia irakurri gabe e? Edo taberna zuloen baten irakurri duzu?" botatzen zenidan zuk erdi haserre, erdi irribarrez, eta nik, oraindik guztiz gorrituta, Mikel Markezen letrak gogoratzen nituen nahitaez "etxerako lanak tabernetan egiten dituzten neskatxak gustatzen zaizkit...". Zuri ere bai? Galdetu nahi izango nizukeen nik. Baina jada Txiki eta Otaegirena azaltzen hasten zinen berriro.

Uxue Alberdi

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
c 943744112
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABDRATZAILAEA Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Go1zon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

E6 ELGOIBARKO IZAILA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



411€ kutxa
esko

DANOBAT = **GOITI**
ALDUINAS HE MAIENTA GRUPO 06NOBAT

ESTARTA

nnx

- Emakume batek esan digunez, **Urruzuno Bailaran oso errebuelta txarra dago: "Errebuelta oso arriskutsua da, ez da ezer ikusten, eta istripuak ere gertatu izan dira. Ispilu bat jartzeak asko hobetuko luke egoera"**.



- Urasandiko auzokide batzuk azaldu digutenez, **larunbatetan Pilar ikastetxeko zubi azpian mozkor asko egoten dira: "Jendea Pilarreko zubi azpian egoten da edaten, eta askotan ez dute pasatzeko lekurik ere lagatzen. Gainera, dena zikinduta lagatzen dute, eta Pilarreko Haur Hezkuntzako ikastetxeko atearen sarraila puskatu zuten. Udaltzainek ingurune hau ere zaindu beharko lukete"**.

n1110111



- Elgoibarko itzulian parte hartu zuten bi mendizalek, **Morkaiko Mendizale Elkartea txalotu nahi du: "Zorionak eman nahi dizkiogu Morkaiko Mendizale Elkarteari Elgoibarko itzulia hain ondo antolatzeagatik. Era berean, aipagarria iruditzen zaigu urtero-urtero Iñaki Beristainek eta Valentin Txurrukak egiten duten lana, mendizaleentzako hamarretakoa prestatzen. Morkaiko Elkartek, Iñakik eta Valentinek txalo ugari merezi dituzte"**. **Morkaikoko zuzendaritzak, bestalde, eskerrak eman nahi dizkie urtero bezala, aurtan ere, Elgoibarko Itzulia antolatzen eta partaideak indarberritzen lagundu duten guztiei: "Ardoak: Julio Bueno eta Ibartxiki. Harategiak: Sahatzu, Iraola, Armueta, Fraile, Landa, Dori eta Ziarda. Fruteriak: Bollar eta Pilar. Kafek: Idarraga. Supermerkatuak: Eroski eta Netto. Elkartek: Karakate eta Kalamua. Pertsonak: Valentin Txurruka, Iñaki Beristain, Ascension Gomez eta Jaime Martinez. Erakundeak: Udal Musika eta Dantza Patronatua, Haritz E.D.T., Udal Kirol Patronatua eta Udaleko Brigadak. Baserriak: Altzola Beraseta eta bide bazterreko guztiak. Baita ere, nola ez, partaide guztiei. Poza ematen baitu horrelako herritarren laguntza eta partaidetzarekin antolakuntza lanak egiteak"**.



9.260 elgoibartarrek izango dute maiatzaren 25ean botoa emateko aukera Elgoibarko Udala 17 zinegotzik osatuko dute



Artxiboko argazkia.

Datorren domekan, maiatzaren 25ean, Udal Hauteskundeak ospatuko dira, eta Elgoibarren 9.260 pertsonak izango dute botoa emateko aukera. Hauetatik 12 Elgoibarren bizi diren Europar Batasuneko eta Norvegiakoak dira, eta 156 kanpoan bizi diren elgoibartarrak.

Auzo desberdinetan banatuta, 16 hauteskunde mahai ipiniko dira guztira. Plaza Txikian 6, Zaharren Biltokian 1, Santa Klaran 1, Pedro Muguruza Etorbideko eskoletan 3, San Roken 2, Urasandin 2 eta Altzolan 1.

Plaza Txikian 3.421 pertsonak izango dute botoa emateko aukera, zaharren biltokian 623, Pedro Muguruza Etorbideko eskoletan 1.421, San Roken 1.915, Urasandin 1.192, Santa Klaran 319 eta Altzolan 212 pertsonak eman ahal izango dute botoa.

17 zinegotzi

10.630 biztanle ditu Elgoibarrek, eta Udala 17 zinegotzik osatuko dute. Botoak goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte eman ahal izango dira, eta hauen banaketa D'Hont legearen arabera egingo da.

Oharra:

B arreneko irakurleei gogorarazi nahi diegu Udal Hauteskundeei buruzko orri berezia kaleratuko dugula astelehenean, maiatzaren 26an. Bertan, Elgoibar eta Mendaroko Udal Hauteskundearen emaitzak eta alderdi politikoaren balorazioak eskainiko ditugu.

Ovidio Campello PSE-EE alderdiko zerrendaburuak herritarrengandik hurbilago dagoen Udalaren aldeko apustua egin du

Maiatzaren 17an, Ovidio Campello bere alderdi politikoaren programa aurkeztu zuen. PSE-EE alderdiko zerrendaburuak Udaletxe moderno, eta partehartzailearen aldeko apustua egin du: "Herritarrengandik gertuago dagoen Udala osatu behar dugu, herriko talde guztiak kontuan hartuko dituen, moderno. "Egin ezazu nirekin" lema "egin dezagun batera" bihurtu behar dugu". Bestalde, Udaletxeko langileen arteko harreman ona bultzatu behar dela azpimarratu zuen.

Jarraikotasunaren bidetik

Beraien helburua aurreko legegaldian hasitako ekintzei jarraipena ematea da. Berak azaldu zuenez, orain arte oposizioetik lanean aritu dira, beren proposamenak eginez, Urasandiko eskailera mekanikoena esate baterako, baina gainontzeko alderdiek

eginiko proposamen ugari onartu dituztela gaineratu zuen, besteak beste, Mintxetako aire libreko igerilekuak eraikitzea, Albitxuriko Industriegunea...

Etorkizunari begira, proposamen ugari egin zituen. Garrantzitsuenen artean, trafikoaren arazoa aipatu zuen: "Lur azpiko aparkalekua egin behar da Plaza Txikian.

Elgoibarbus delako zerbitzu bat jarri beharko litzateke, jendea lantegietara eraman eta ekartzeko, eta Eusko Tren enpresarekin hitz eginez San Pedro eta San Antolinen apeaderoak egitea komeni



Pakito Linares, Fernando Suarez, Ovidio Campello eta Miguel Fernandez

da". Babes ofizialeko etxeak eraiki eta lanpostu gehiago sortu, Plaza Txikia gune kultural bihurtu, auzoetan berrikuntzak egin eta terrorismoaren biktimei omenaldia egitea komeni dela aipatu zuen.

Danobatek Newall enpresa ingelesa eskuratu du

Danobat Taldeak 806 langile ditu, eta iaz 143 milioi euro fakturatu zituen

Danobatek nazioartekotze prozesuan beste aurrerapauso bat eman du. Joan den urte bukaeran eskuratutako Alemaniako Overbeck-en ondoren, Danobatek atzerrian eskuratzen duen bigarren produkzio enpresa da Newall. Aurreko kasuan bezala MCCk proiektu hau aurrera eramaten lagundu du, inbertsioaren %40an hartu baitu parte.

Merkatu ingelesean sendotutako, Newall enpresa bereganatzeak, Erresuma Batua bezalako merkatu garrantzitsuan zabalkundea erraztuko dio enpresa elgoibartarrari. Danobatek merkatuko hiru



arlotan nagusitan hartuko du parte: ekipa ondasunetan, automozioan eta aeronautikan. Aipatu beharra dago, Danobatek motorra eta lurreratze

trenerako piezen mekanizazio lanetan aitzindari postua indartu egiten duela.

Newall

Newall makina erreminta fabrikatzaile entzutetsuak historia luzea du. 1900ean sortutako enpresa honek 1936an lehenengo artezteko makina eraiki zuen, eta 1945ean birabarkiak artezteko lehenengo makina. Peterborough-en kokatuta, London-eko Stansted aireportutik ordu betera, gaitasun handiko langile talde bat du, eta produktuaren garapena eta herrialde horretan hain garrantzitsua den aeronautika sektoreko produktu sofistikatuak fabrikatzeko gai da.

14 etorkin euskara ikasten Elgoibarren



Pasadan ikasturtean bezala Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak, ikastetxeekin elkarlanean, 6-17 urte bitarteko etorkinei euskara ikasten lagundu ahal izateko errefortzu saioak antolatu ditu. Saio hauen helburua kanpotik etorritako ikasleek duten euskara ikaste arazoa arintzea da. Saio hauetan mintzamina lantzen da gehienbat, ikasleek gustuko duten materiala erabiliz. Kurtso honetako errefortzu saioak urrian hasi dira eta ekainean bukatuko dira. Irakaslea Julene Alberdi elgoibartarra izan da.

Aurten hiru talde ari dira euskara ikasten, orotara 14 etorkin dira. Ikasleak asteen 3 orduz elkartzen dira irakasle-

begiralearekin Udal Euskaltegiko gela batean. Adin eta jatorri ezberdinetako ikasleak dira: Leon, Galizia, Caceres, Kantabria, Kolonbia, Brasil eta Ukraina. Errefortzu saio hauetan parte hartzeko ikasleek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Atzerritarra edota hizkuntza eredu erdaldun batetik datorrena izatea (A ereduaren barne)
- 6 urtetik gorakoa eta 17tik beherakoa izatea.
- Elgoibarren bizitzea

Errefortzu saioei buruzko informazio gehiago nahi duenak Udaleko Euskara Zerbitzuan (Kultur Etxean 1. pisuan) aurki dezake.

Einbiou-ren esker ona Elgoibarko gizarte mugimenduei

Elgoibarko abertzale eta ezkertiarren Einbiou plataformak eskerrak eman nahi dizkie herriko 13 eragile hauei. "Bakoitzak bere arloan eta lantzen duten gaiari dagokionean, herri plataformarekiko harremana orain artekoa bezalakoa, normaltasun osokoa, alegia, izango dela ziurtatzearen, Espainiako legearen arabera jokoz kanpo utzi nahi bagaituzte ere. Eskerrik asko zuen babesagatik".

Elgoibarko Izarra
Morkaiko Mendizale Elkartea
Udaletxeko langileen komitea
Ongarri (Argazkilaritza)
Ongarri (Zinema)
Txankakua
LAB
ELA
AEK-ko irakasleak
Euskaltegiko irakasleak
Haritz Euskal Dantzari Taldea
Gazte Asanblada
Etxerat

Datorren igandean, maiatzaren 25ean, Udal Hauteskundearen eguna da

ERABAKITA AL DAUKAZU BOTOA ZEINI EMAN?



JAIONE ETXEBERRIA

35 urte, etxekoandrea

Bai, erabakita daukat. Ez naiz gehiegi fijatuta Elgoibarren aurkezten diren zerrendetan, baina dagoeneko badakit zer egingo dudana.

GLORIA BARRUTIA

48 urte, administraria

Oso argi daukat nori eman botoa. Normalian alderdixan fijatzen naiz, baina aurten Elgoibarren pertsonari emango diot botoa. Konfiantza osoz emango dot botoa, eta ia herrixa piskat txukuntzen dogun danon artian.



ANJEL ROMERO


47 urte, langile industrialia

Oraindik ez daukat oso argi. Botoa emango dut, baina erreflexio eguna aprobetxatuko dut azken erabakia hartzeko. Udal Hauteskundeak izanik, alkate izateko pertsona egokienari ematen saiatuko naiz.

INAZIO GARATE

82 urte, jubilatua

Bai, bizitza guztian botau doten alderdixari emango diot. Normalian ez naiz zerrendetan fijatzen, alderdixa hartzen dot kontuan, baina aurtengo alkate gaia ezautzen dogu eta asko gustatzen jata.



JOSEBA ESMORIS

29 urte, ikertzailea

Bai, gutxi gorabehera erabakia hartuta daukat. Zerrendaburuari baino gehiago, alderdiari ematen diot botoa. Nire alderdiko zerrendagaiekin oso gustura nago.

LOLI FREIRE

47 urte, etxekoandrea

Bai, erabakita daukat botoa nori eman. Zerrendan joango direnei ez diet kasu handiegirik egiten, alderdiaren ideiak botatuko ditut.



Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

17's JOSE**ibiffé**(091
(Txema)

**Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortexoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

**MARIBI AGIRREGOMEZKORTA**

EAJ-EA koalizioko zerrenoa Durua

"Gazteentzako jarduerak eta paseatzeko lekuak daude faltan"**Adina:** 48 urte.**Jaioterria:** Elgoibar.**Ikasketak:** Batxilergoa, Banketxe Gestio eta Zuzendaritzan Masterra.**Lanbidea:** Banco Santander Central Hispano, Eibarko bulegoko zuzendaria.**Egoera zibila:** Ezkondua.**Zaletasun bat:** Lagunekin irteeta.**Liburu bat:** Ken Follet-en "Alto Riesgo".**Kirol bat:** Esku pilota.**Janari bat:** Legatza.**Elgoibarren zer dago faltan? Zer soberan?**

Paseatzeko lekua, eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako jarduerak daude faltan.

Soberan, berriz, gazteek herri guztian zehar lagatzen duten zikinkeria.

Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein ezkutatuko?

Mintxetako ingurunea erakutsiko nioke, eta ez nioke ezer ere ezkutatuko.

Defini ezazu zure burua bi hitzetan.

Langilea eta jendearekiko harremanetan irekia.

Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena? Eta txarrena?

Gure Gizarteak Prestige-en hondamendiaren aurrean izan zuen erantzuna izan da berririk onena. Txarrena, berriz, Irakeko gerra.

Zein izan da zure bizitzako unerik onena?

Nere semeen jaiotza.

Zein miresten duzu?

Señorita Anita (Ana Etxeberria andereflora).

"Elgoibarko herri hobetzen jarraitzeko ahalegin guztiak egingo ditugu"**Praktikatzen al duzu kirolrik? Zein?**

Ez.

Etxeko lanik egiten al duzu? Zein?

Bai, denetarik apur bat.

Emaiguzu arrazoi bat maiatzaren 25ean zuri botoa emateko.

Elgoibarko herria hobetzen jarraitzeko

ahalegin guztiak egingo ditugula, borondate onarekin lan eginez.

Elgoibarko Alkate aukeratzen bazaituzte, zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Ospatu, eta kanpainan zehar jarritako helburuak betetzeko, berehala lanean hasi.

PROGRAMAREN 5 PUNTU GARRANTZITSUENAK

1. Nagusi eta behartsuekiko etxer-etxeko eguneroko laguntza.
2. Eguneroko eginkizunetan euskararen erabilera bu ltzatzea
3. Babes ofizialeko 220 etxe berriren eraikuntza.
4. Herriko apainduaren hobekuntza: lorategi, zubi...
5. Baserrien kokapenaren seinaliztapena eta nekazal turismoen sustapena.

FITURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2• 3.sotoa a 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNTATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

karlizano
San Frantziska, 14 — Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Egunkariaren aldeko eguna ospatuko da bihar, zapatua, Elgoibarren

Egunkari berria ekainaren amaieran izango da kalean, eta orain akzioak saltzea da premia gehien duen lana

**:3gunkaria
orrer«**

EGUNKARIAREN ALDEKO EGUNA ELGOIBARREN

PLAZA HANDIAN

12:00

TALO JANA

EGUNKARIAKO KAMISETEN
ETA AKZIOEN SALMENTA

HAUR JOLASAK

MADALAKO PARKEAN

14:30

BAZKARI HERRIKOIA
(Jolasak, erromeria, ...)

20:00

KONTZERTUA

ARIMA BELTZA

K 104

LUR GOR

HANDIK ETA HEMENDIK

Madalako parkean **TXOSNA BAT**
egongo da arratsaldeko 15:00etatik
aurrera.

*ELCOIEARKO EGUNKARIAREN
ALDEKO sATz0RaEA*

ihar, maiatzak 24,
Egunkariaren aldeko eguna
ospatuko da Elgoibarren.

Egitarau zabala prestatu du Egunkariaren Aldeko Batzordeak, eta besteak beste, talo jana, bazkari herrikoa eta kontzertua izango dira egunean zehar. Honekin batera, egunkari berriaren aldeko akzioak erosteko aukera ere izango da.

Joan zen otsailaren 20an Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik, egunkari berria sortzeko lanetan ari dira herri batzordeak. Elgoibarren ere, berehala osatu zen Egunkariaren Aldeko Batzordea, eta ekimen ugari bultzatu ditu Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzeko.

Orain arte egindako ekintzen balorazioa positiboa da. Kale ekimenetan jende ugari hartu du parte. Kontzentrazioa eta kalejiran jende ugari bildu zen, eta lanuztea deitu zen egunean, Madalako parkea jendez gainezka zegoen.

Egunkariaren aldeko bonoak saldu eta harpidedunak lortzea izan zen hurrengo pausoa. "Koadrila bat-bono bat" kanpaina jarri zen martxan, eta emaitza onak jaso dituzte. Aipatu beharra dago, bestalde, Egunkariaren

aldeko material asko saldu dela, kamisetak batez ere.

BONOEKIN LORTUTAKO DIRUA:

50 euroko 25 bono: 1.250 euro
(207.000 pta.)

300 euroko 6 bono: 1.800 euro
(300.000 pta.)

guztira: 3.050 euro (507.000 pta.)

KAMISETAK:

100150 inguru saldu dira (260.000 pta.)

HARPIDEDUNAK: 26

SALDU BEHARREKO AKZIOAK:

euroko 50 akzio (415.000 pta.)

300 euroko 100 akzio (5.000.000 pta.)

Aurrera begira

Datorren ekainaren amaiera alderako egunkari berria kalean izango da, baina lan handia dago egiteko oraindik. Garrantzitsuena akzioak saltzea da. Elgoibarren 50 euroko 50 akzio (415.000 pta.) eta 300 euroko 100 akzio (5.000.000 pta.) saldu behar dira. Biharko jaialdian nahi duenak, eskuragarri izango ditu egunkari berriaren aldeko akzioak.



Egunkariaren aldeko lanuztean jende ugari bildu zen Madalan.

Gazti BARRREN




GAZTI BARRREN

Gazti Barrren

Plazatik Gaztetxera

41
4111'11 +0N.401mwiil

Gazteteetako bertso txapelketa



OUR FAVOURITE SONGS!

Madrildik datorren taldea dugu Tres Hombres. Eta izenak bestelakoa badio ere, lau partaidek osatzen dute banda espainiarra. Javier Vacas baxuan, Antonio Alvarez baterian, Jairo Zavala ahotsean eta gitarretan, eta Daniel Madariaga, berriz, Hammond eta pianoan. Tres Hombres La Vaca Azul taldearen proiektu paraleloa da. Eta bertan bertsoak dira nagusi. Batez ere, musika beltzean oinarritutako bertsoak. Tituluak dioskun moduan, "Our Favourite songs", beraien abestirik gogokoenak biltzen dituen lana da.

W. Dixon-en "I'm ready" rekin zabaltzen dute lana, entzulea musika onez gozarazteko prest dauden seinale. Feeling eta pasio handia erakusten dute jotzen duten nota bakoitzean. Eta moldaketak benetan gustura entzuten dira, Gershwin eta Heyward-en "Summertime" ezaguna da adibiderik garbiena. Funky momentuak ere aurki ditzakegu diskoan James Brown-en pare bat abestirekin. "Our favourite songs" ZZ Top taldearen moldaketa batekin bukatzen da.

Laister Euskal Herriko plaza, areto, zein tabernatan ikustea espero dugu Tres Hombres. Izan ere, "Our favourite songs" Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratu baitu. Bien bitartean diskoaz goza dezakegu.

Ion Gurrutxaga



ISA RODRIGUEZ, aerobic eta aerokickboxinl "Aerokickboxing Ean ostiko, konbinatzen dira"

ISA RODRIGUEZEK, 21 URTEKO GAZTEAK, AEROBIC ETA AEROKICKBOXING KLASEAK EMATEN DITU UDAL KIROLDEGIAN. MUSIKAREN ERRITMORA DANTZAN EDO AIREARI OSTIKOKA ILE ARROSADUN ETA CINGEZ JOSITAKO NORBAIT IKUSTEN BADUZUE, BERA DA. BAINA EZ ZAITZATELA BERE BESO GIHARTSUEK BELDURTU! BURDINAK BURDIN ETA UKABILAK UKABIL, GOXO-GOXO ETA IRRIBARREZ HARTU GAITU ISAK KIROLDEGIAN BERTAN ETA, GALDETUTAKO GUZTIARI UMORETSU ERANTZUN D10. ZIUR GAUDE BERE BEGI BERDEEKIN UKABILEKIN BAINO ASKOZ GAUZA GEHIAGO LORTU IZAN DITUELA BIZITZA HONETAN...

Nolatan hasi zinen aerokickboxing eta aerobic-eko klaseak ematen?

Aerobic-eko irakasle izateko titulua ateratzen ari nintzela, aerokickboxinga ezagutu nuen eta ikastaro batean izena eman nuen. Gero, Elgoibarko kiroldegian lanean hasi nintzenean Ramoni komentatu nion eta, hari ondo iruditu zitzaionez aerobica eta aerokickboxinga irakastan hasi nintzen.

Aerokickboxing-a nahiko kirol berria da. Zer da zehazki?

Oinarrian aerobicaren antzekoa da, musikaren laguntzaz koreografiak asmatzea da kontua. Aldatzen direnak pausoak dira, aerokickboxingean ostiko, ukabilkada eta ukondokoak konbinatzen dira.

Edonork praktikatzeko moduko kirola al da?


Bai, muga batzuen barruan nahiko publiko zabala hartzen duela uste dut, ez da kirol gogorregia ere.

Capoeira ere egiten duzu. Zer da Capoeira?

Antzina, Afrikako esklaboei ez zieten borroka egiten uzten eta hauek dantza bat asmatu zuten egoera horren aurrean. Elkar ukitu gabe borrokatzen zirela esan daiteke, horixe da capoeira, dantza eta borrokaren arteko konbinazio bat, musikaren erritmora egiten den kontaktu fisikorik gabeko borroka.

Bestalde, nahiko estetika berezia duzu. Zenbat piercing eta tatuaje dituzu?

Puf!ba, tatuajeak bi bakanik, sor-



ukabilkada Eta ukondokoak

baldan eta aldakan, eta piercingak...12 edo 13 bat.

Inoiz izan al duzu arazorik zure itxura fisikoagatik?

Ez, orain arte ez dut arazorik izan, ezta lana topatzeko orduan ere. Hori bai, askotan arraro begiratu izan didate, gainera, nagusiei ere ematen dizkiet klaseak eta ez dago egun bat inork belarritakoengatik zer edo zer esaten ez didanik. Baina nik ez dut gaizki hartzen, inork ez dit modu txarrean inoiz ezer esan. Alderantziz, piercingen kontura piropo bat edo beste ere esan didate, behin hala bota zidan mutil batek: "begi artean daukazun peircing hori ez da bat ere polita zure begien aldean!"

Jendeak asko begiratuko dizu. Esan daiteke atentzioa deitzea gustatzen zaizula?

Egia esan, ez dit inporta. Niri gustatu egiten zait honela janztea eta jendeak begiratzeak ez dit trabarik egiten. Gehiago esango nuke, nik ere begiratu egiten dut zerbaitek atentzioa deitzen didanean. Ez naiz horrela janzten jendeak begira diezadan baina horrela janzten naizelako jendeak begiratu egiten badit, ez dit bat ere enbarazurik egiten.



"Ez dut pentsatu itxura honekin zer esan edo demostratu nahi dudan, gustatu egiten zait"

Uste duzu pertsona baten itxurak eta izaerak zer ikusia dutela?

Neurri batean agian bai, zerbaitegatik janzten zara honela edo hala, baina nik inoiz ez dut pentsatu itxura honekin zer esan edo demostratu nahi dudan, gustatu egiten zait eta niretzat hori nahikoa da.

Esan daiteke piercing eta tatuajeek adikzioa sortzen dutela?

Bai! Nik lehenengo piercingo orain dela bost bat urte egin nuen eta geroztik ez naiz gelditu. Baina azkena egin nuenean

nire buruari agindu nion ez nuela nire burua gehiago zulatuko, bestela edozer gauza emango dut!

Zein da duzun belarritakorik bitxiena?

Agian hortzen gainean, entzian dudana.

Aerokickboxing-a, tatuajeak, piercingak... itxura agresibo samarra eman dezakete. Nolakoa zara?

Agresiboa ez behintzat! Ulertzen dut jendeak lehen begiratuan aurreiritzi okerrak egin ditzakeela baina nire inguruko jendeak badaki nolakoa naizen eta hori da garrantzitsuena. Pixka bat ezagutzen nauen edonor segituan konturatzen da aurreiritzi horiek ez direla horrela.

PETTE"

E


uskal literaturan 1990eko hamarkadan hiru liburu nabarmentzen dira:

Bernardo Atxagaren "Gizona bere bakardadean", Ramon Saizarbitoriaren "Hamaika pauso" eta Anjel Lertxundiren "Otto Pette. Hilean bizian bezala". Azken honetan, idazle gipuzkoarrak Erdi Aroan kokatutako istorioa dakarkigu. Garai ilun horretan, erregea, kleroa eta matxinatuak botere borroketan dabilta, izurri beltza zabaltzen ari den bitartean. Nobela, euskaragatik ez ezik, teknika aldetik ere aipagarria da, narrazioa ikuspuntu ezberdinetatik kontatzen baitzaigu. Orrialdez orrialde, kontakizun honetan gerrazko pasarte ugari berri jasoko du irakurleak. Hain zuzen ere, boterearen erabilera kupidagabea agertzen da liburuan, gaur egunean, zoritxarrez, ezaguna egiten zaigun kontua. Azken finean, nobela sendoa Anjel Lertxundik plazaratutako "Otto Pette. Hilean bizian bezala" hau. Idazle oriotarraren lana hasieratik bukaerara euskal erreferentzietan aberatsa da eta guztia euskara ederrean emana dago.

Jon Eugi



ElgoibarrEn, Euskal HErriko hErri gEhienetan antzEra, bEti izan dira bErtsozalEak, Eta baita bErtsolari bat Edo bEstE ErE. Egun EZ dugu bErtso-Eskolarik hErrian baina badira, bai, hitz nEurtuEn inguruan mugitzEn dirEn pErtsonak. GaztEtxEan, EsatErako, urtEro antolatxEn dituztE bErtso-afari, bErtso-saio Eta txapElkEta txikiak. BERTsoa ardatz duEn azkEn EkimEna "Plazatik gaztElyEra" bErtsolari txapElkEta izan da , eta gaur, hilak 16, jokatuko da txapElkEta honEn hirugarren kanporaketa gaztEtxEan bErtan. BertsolariEtako bat Elgoibartarra dugu gainEra, Jon GaratE "Katalo". BErarEkin Eta IEhiaketa honEn antolatzaile dEn Eñaut Oiarzabalekin izan gara bErrikEtan txapElkEtaren Eta bErtsoaren gainEan.



Gaur gaueko 10etan "Plazatik gazttxera" bertso txapelketaren hirugarren kanporaketa jokatuko da Elgoibarko gazttxean. 6 bertsolari gazte arituko dira finalerako txartelaren bila lehian: Eneritz Azkue, Julen Zelaieta, Ruben Sanchez, Joseba Otaegi, Irati Anda eta Jon Garate "Katalo". Lehiaketa hau egiteko ideia Mutrikuko bertso-eskolaren eskutik sortu zela azaldu digu Eñaut Oiarzabalek, txapalketaren antolatzaile denak. "Mutrikuko bertso-eskolan Mutrikuko gazte asanbladako jendia ibiltzen da eta txapelketa hau sortzia okurritxu zitzaizen normalian plaza asko itxen ez ditzuezten bertsolari xerri aukera bat emateko. Ta hola, eskualdeko gazttxien artian harreman haundixa dakagunez ideia hau atera zan: bertso txapelketa bat itxia bertsua eta gazttxiak uztartuz".

Orain arte bi kanporaketa egin dira: lehenengoa Plaentzian hilaren 9an eta bigarrena Deban joan zen ostiralean, hilaren 16an. Elgoibarkoa izango da hirugarren eta azken kanporaketa eta,

**GAUR GAUEAN ZITA DUGU, I
INBITAUTA ZAOZTE AFARIRA TA
HOR GERATZEN
. ETA, NOLA E**

AZTETXERA



datoren asteen, maiatzaren 30ean, finala jokatuko dute 6 bertsolarik Mutrikuko gaztetxean. Finalera zuzenean sailkatzen dira kanporaketa bakoitzean puntuazio onena lortzen duten bertsolariak eta, orainarte, beraz, bi dira, finalerako txr.tela lortu dutenak: Peru Magdalena eta Iñaki Apalategi. Zuzenean sailkatuko den 3. bertsolaria nor izango den gaur gaueko kanporaketan erabakiko da eta gainontzeko hiru sailkatuak puntuen arabera onenak izan direnak izango dira.

Bertso saioaren aurretik afaria egingo dute gaztetxean bertan eta nahi duenak salgai ditu afarirako txartelak.

Honakoa izango da bertsolariek burutu beharreko lana: ofiziotan zortziko handian bina bertso, ofiziotan zortziko txikian bina bertso eta, bakarka, bi punturi erantzuna eta gaiari bi bertso. Baina zer hoberik hau guztiaz txapelketa barnetik bizi behar duen bertsolariarekin hitz egitea baino, Jon Garate "Katalo" k txapelketa aurreko minutu batzuk eskaini baitzizkigu:

**AZ, GAZTETXEAN. "DANAK
9TSO SA1XORA" DIO EÑAUTEK.
DNBITA, HORTAZ.
,NIMO JON!**

Jon Garate "Katalo"

Noiz hasi zinen bertsotan?

13 urte nazkanian Elgoibarko bertso-eskolan hasi nintzan Germanekin-eta, eta bastante ondo ibiltzen nintzan, baina 17 urte nazkanian pixkat albo batera utzi nuan bertsua eta aurren hasi naiz berriro, banakan gogua.

Ez da jendaurrean bat-batean egingo duzun Iehen aldia ezta?

Ez, bertso-eskolan nembilean Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan kantau genun baina denpora asko da bertsoan itxen ez dotela.

Nolatan erabaki zenuen "Plazatik gaztetxera"n parte hartzea?

Gaztetxian komentau ziaten ia apuntau nahi naban ta animau in nintzan.

Non egiten duzu bertsotan?

Ostegunero gaztetxian juntatzen gera lagun kuadrilla bat ta asteartetan Zestuara jutun naiz Uxuekin. Elgoibarren bertso-eskola baten faltia dauala uste dot. Gu juntatzen gera baina ez da berdina, nor-

bait bihar da bertso-eskolia pixkat gidatzeko ze bestela seriotasun faltia igartzen da. Bertsozaliak bagaoz ta nik uste Udalak edo Elgoibarko Izarrak bultzada bat eman bihar leukela bertso-eskola bat sortzeko.

Urduri al zaude txapelketa-rako?

Martxuan apuntau nintzanian lasai-lasai nuan baina oin dala bi astetik...denpora asko daruat kantau gabe ta beldur pixkat badakat, batez ere, puntueri erantzuteko.

Bertsolari bat?

Unai Iturriaga

Bertsotarako doinu bat?

Habanera

Nori eskainiko zenioke gustura txapela?

Euskal preso guztixeri ta, batez ere, Inaxio Iriondori.

Zer gairi erantzungo zenioke gustura?

Bakarkakuan behintzat gai triste bati, luzitzeko gai bati, nahiz ta enaizen luzitzuko...



Parie hartu nahi baduzue deitu edo eforri BARREnera. Animatu!

@ **Miresten duzun norbait?**

Nire Aitona.

@ **Inoiz esan dizuten gauzarik**

politena?

Karamelozko begiak ditudala.

@ **Lotsa handia sentitu duzun une**

bat?

Txikitan tinbrea jo...eta atea zabaltzean nire etxea ez zela konturatu nintzeanean.

Jenio bat naiz. Eskatu 3 desio.

1-Inteligentzia aparta izatea 2-Nortasuna gordetzea 3-haurreko biak denok izatea.

@ **Nor ezagutu nahi zenuke?**

Javier Camara, "7 Vidas"eko Paco Jimeno.

@ **Muxu bat. Non?**

Lepoan, sorbaldan...

@ **Ikusezina bazina?**

Nesken aldagelak bisitatuko nituzke.

@ **Zer aldatuko zenuke zure**

bizitzan?

Ezer ez.

@ **Nola imajinatzen duzu**

zure burua 10 urte barru?

Nire burua? Ile gutxiagorekin.

@ **Jeloskorra al zara?"**

Ez, konfidantzarik gabeko bikotea ez da batere ona.

@ **Zure bikotea beste batekin**

harrapatuz gero?

Berarekin lasai-lasai hitz egin, eta arrazoi on bat ematen ez badu...

@ **Pelikula bat.**

"Los Doce del Patibulo" edo gaur egungo "El Señor de los Anillos".

@ **Inoiz esan duzun gezurrik handiena?**

Lasai ez da zugatik...nigatik da.

@ **Neska bati nora begiratzen diozu lehenengo?**


Begietara (denok esaten dugun gezurra da).

@ **Eta mutil bati?**

Arropara, ea nireztat gustatzen zaidan.

@ **Inoiz "maite zaitut" esan al duzu?**

Bai, noski.



<http://ruWnfigueiredo.com/> / 22urte

@ **Etxekolanik**

egiten al duzu?

Normalean ez, baina tokatzen denean gogor saiatzen naiz.

@ **Zure etxea sutan balego zer salbatuko zenuke?**

Nire Playstation2a, nola ez!

gazte informazioa

TXARTELA

Argazkia
NAN.
Motrikulo
6 euro

Argazkia
NAN.
6 euro

Argazkia
NAN.
Lan kontratuaren
frogagiria
8 euro

fiterpetxeen liburu gido
solgoi 7,80 euroton
(Europa, Afrika, Arnerika, Asio)

GAZTEA (14<25 urte)
NAN.
5 euro
Gazte Txartelarekin 2,5 euro

HELDUA (25<)
NAN.
11 euro

FAMILIAKOA
NAN.
22 euro

TALDEKOA
Partaideen zerrendo
Estatutuen kopia
15 euro
Dohainik EJko elkarten partaideak

Kultur etxeko 2.solairua • Nafarroa plaza,3 • Tel. 943 741 461 • E-maila:elg.gzerbitzua@terra.es

Handia naizEnEan... ingurugiro osasunEko tEknikaria



NAIARA ALGUACIL

Txikitatik erakarri izan dute Naiara, 19 urteko gazte elgoibartarra, naturak eta bere baitako izaki guztiek. Albaitari izateko ametsa buruan aspalditik zerabilen arren, etxeko beroak eta amaren bazkari gozoek ezinbestean sortzen duten loturak, Elgoibarren bertan geratzearen alde apustu egitea ekarri diote Naiarari. Hala ere, bere bokazioa eta ingurugiroarekiko grina ondo asetuko dizkion aukera topatu du neska honek: ingurugiro osasuneko goi-mailako zikloa. Ea zer kontatzen digun.

Nolatan otu zitzaizun ziklo hau egitea?

Nik Zaragozan albaitaritza itxeko asmua nakan baina etxekuei ez zien grazixa haundirik itxen ni haraino jutiak. Ziklo honetaz nere aitxitxan bitartez enterau nintzan ta berakin berba itxen azkenian hamen gelditzia deziditxu naban.

Zenbat denborako ikasketak dira?
Klase teorikuak urte terdikuak dia ta gero praktikak itxen dia toki diferentietan: laboratorixuetan, kontserberetan, depuradoretan...

Zer ikasten da "ingurugiro osasun"eko zikloan?

Gehixenbat gaur egungo progresua ingurugiruakin ekilibriuan egon leikela ikasten dogu, ingurugirua kontutan hartzen daban garapena posible

dala

Zer lan irteera ditu?

Lan desberdin asko: laboritorixo baten alimentuak kontrolatzen, industrietako hondakinak kontrolatzen...

Non ari zara ikasten?

Ni Elgoibarren bertan, institutuan, eta uste dot Donosti aldiaren badaola ziklo hau.

Ziklo hau amaitu ostean beste ziklo edo karrera batzuetara sartzeko aukerarik ba al dago?

Bai, erizaintza eta ingurugiroko karreretara sartu leike ta beste ziklo batzuetara ere bai.

Irteerarik egiten al duzue?

Bai, pila bat, leku asko bisitau ditxugu: panaderixa bat, konserbera bat, depuradora bat, Kaikuko produktiba, Aguas Alzola eta Inekoko al-mazenak...irteerak interesantiak izaten diaz baina gero lanak entregau bihar izaten ditxugu irteera hoienguruan eta...

Zein ikasgai dituzue?

Urak, elikagaiak, bektoreak eta gestioa. Euskeraz ta erderaz, danetik itxen dogu.

Zer asmo duzu etorkizunerako?

Lana topatu ezkerolanian hasiko nintzake baina bestela igual ingurugiroko karrera ingo dot

Gomendatuko al zenuke ziklo hau ikastea?

Bai, ni behintzat oso gustora nau, ez gera jende asko ta etxian moduan gaoz.

masturbazi



Eli Moreno
SEXOLOGOA

HURRENGO EGUNEKO PASTIL

Modan dago, hainbat izen dauzka eta askotan ez dalcigu, noiz hartu, nola, non lortu... egia esan pastila "madarilcatu" honi zutabe hau baino gehiago eskaini beharko genioke, baina hasteko modua izan daiteke, informazio gehiago behar izanez gero BILUZIK ZERBITZUAN aurkitu dezakezue.

Argi utzi ez dela antisorgailu bat; antisorgailu batek porrot egiten du-

nean erabiliko dugu, adibidez, kondoia apurtu baldin bazaigu (gaizki erabili dugulako), edo pilula hartzeaz ahaztu bagara, edo koi-to harreman bat babesik gabe izan badugu...

Hartzeko 72 ordu ditugu, zenbat eta lehenago hartu fidagarritasun handiagoa, beraz ordua kontutan hartu gabe urgentzietara joango gara pilula eskatzera, bertan errezeta egingo digute eta farmaziara joango gara erostera. Hiru gauzal! Posible da pilula urgentzietan ez ematea; bi pilulek (bi pilula datoz kaxa bakoitzean, bat erosten duzun momentuan hartu behar da eta bigarrena 12 ordutara ia 20 euro balio dute eta hiru HIES-a ez du prebenitzen! Hurrengo egunetan botaka gura, mareoak, neke...izan dezakezula.

Badauka alde onik, baina hobe da, erabili behar ez izatea. Kondoitxu bat euro bategatik edo merkeago lortu dezakegu...

Biluzik Sexologia Zerbitzua
Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea.
Bigarren solairuan. TeL 943 74 14 61.
E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.es
Astelehena 17:00-20:00

sexualitate

INGURUGIRO OSASUNERAKO TEKNIKARIA

ZIKLOAREN IRAUPENA?
2.000 ordu

IKASGAIK
Erabiltzeko eta edateko urak, atmosferaren kutsadura, produktu kimikoak, elikagaien kutsaduraren kontrola, lantokiko prestakuntza...

GORAGOKO IKASKETAK
Sarbidea ondorengoetara: Erizaintza, Podologia, Fisioterapia, Logopedia, Gizarte Lana, Maisu-maistra (espezialitate guztietan).

kontzErtuak

MAIATZA

23 barixakua

BILBO

22:00 Potato
Kafe Antzokia

ONDARROA

22:30 Jabier Muguruza
Kafe Antzokia

24 zapatua

BILBO

20:00 Ariel Rot
Kafe Antzokia

ONDARROA

21:00 Keu-Uek
Kafe Antzokia

28 EguaztEña

BILBO

20:30 Inuit Jaia: Tanya Tagaq eta
Ugarte Anaiak
Kafe Antzokia

29 EguEña

BILBO

22:00 Banda Bassotti
Kafe Antzokian.

30 barixakua

BILBO

22:00 La Fuga
Kafe Antzokian

31 zapatua

ONDARROA

22:00 Ken 7
Kafe Antzokian.

0 gazte
informazioa

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxan.

Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461

Ordutegi berria

Astelehena: 17:00-20:00

Asteartea-ostirala: 16:00-20:00

BEKAK

Britainia Handia

La Caixa eta British Councilen 2004-2005 ikasturtean Britainia Handiko Unibertsitate eta goi mailako irakaskuntza zentroetan graduatu ondoko ikasketak egiteko 15 beka eskaini dituzte. Lizentziatuak, goi mailako tituludunak edo berezko titulu baliokide bat izatea eskatzen da, ingelesa lakteta eta nazionalitate espainiarra izatea eskatzen da, besteak beste. Epea: ekainak 27.

LEHIAKETAK

Ipuingintza eta antzerkia

Kutxa Fundazioak, ipuingintza eta antzerkiko 2003ko "Kutxa Donostia Hiria" literatura sariak antolatatu ditu. 4 espezialitate izango dira aukeran: gaztelarazko ipuina, euskarazko ipuina, gaztelarazko antzerkia eta euskarazko antzerkia. Gaia librea. Epea: urriak 15.

LANA

Begiraleak

Zizurkilgo Udalak herriko haur eta gazteekin lan egiteko begiraleak behar ditu udarako. Euskara idatziz zein ahoz menperatzea, azterketa teoriko eta praktikoa gaintzea eta 18 urtetik gorakoa izatea eta Zizurkilen enpadronatua egotea eskatzen da, besteak beste. Epea: maiatzak 23.

Udaltzainak

Azkoitiko Udalak udaltzainen lan poltsa osatzeko oposaketa lehiaketa antolatatu du. Eskola ziurtagiria, Lehen Mailako Lanbide Heziketa titulua edo baliokidea eta 18-32 urte arteko adina izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 27.



MUSIKA ESKOLEN HEZKUNTZA SAILAREN PLAN

BERRIKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEN DUGU (LOGSE):

- * 5 urtekoekin hasten gara.
- * Solfeoko ikasketarik ez duten pertsona nagusientzako banakako klaseak.
- * Hezkuntza ofizialean sartzeko prestakuntza.
- * Ziklo bakoitza gaintzerakoan diplomak banatzen ditugu.

IKASGAI BERRIAK:

Informatika musikala,
Harmonia modernoa,
Musika maestro

IKASGAIK:

Musika eta Dantza tailerra, instrumentu tailerra, lengoia musikala, teoria eta erritmo espezializatua, harmonia, dantza, Akordeoia, trikitixa, panderoa, biolina, biola, biolontxelo, gitarra, flauta, klarineta, oboea, saxofoia, tronpa, tronboia, bonbardino, tronpeta, fliskorno, perkusioa, txistua, silbotea, Pianoa.

TALDE ASKO DITUGU

MUSIKA ESKOLAN DAUDEN EZPEZIALITATE GUZTIENTZAKO.

Gazteen banda - Txistu taldea - Akordeoi taldea - Korua- Hari taldea - Dantza taldea
Roek taldea - Dixieland.

mattekula zattez!!

Mattitzaten 19tik ekainak 13ta.

Mazzantini Zezenzale Elkartearen Zezenketa Xixilion plazan

Jose Luis Arana "Tatti"-ren azken zezenketa izango da

1949tik ez zen zezenketarik egiten herrian. Duela 3 urte Luis Mazzantini Egia toreatzaile elgoibartarra hil zeneko 75. urteurrena ospatzen zenez, zezenketa komikoa antolatu zuen Mazzantini Zezenzale Elkartek Plaza Txikian. Arrakasa ikusirik Xixilion Plazan (Sigmako industrialgunean) jarritako zezen plaza portatilean antolatu zuten jaia iaz. 1.500 pertsonentzako zezen plaza txiki geratu zen.

Berrikuntzak

Aurtengorako hainbat berrikuntza iragarri dituzte antolatzaileek. Nagusia Jose Luis Arana "Tatti"-ren agurra izan daiteke. Aurreko bi edizioetako izarrari mototsa **mozteko ordua iritsi** zaio. "Ikuskizuna norabidez aldatzeko ordua da. Gozatu ederra hartu dut aurreko bi urteetan, baina seriotasun gehiagorekin jarraitu nahi dugu aurrera. 2006. urtean Mazzantini jaio zeneko 150. urteurrena ospatzen da, eta esperientzia behar duten toreatzaile gazteak Elgoibarrera ekartzea



da gure asmoa" azaldu zuen "Tattik". Arratsaldeko 17:30ean hasiko da zezenketa. Aurten ez da manolarik izango eta ezta paseillorik ere. "Tattik" hasiko du jaialdia Sakako zezena toriatuz. Ondoren, Iñigo Arrizabalaga debarrak zaldi munta erakustaldia eskainiko du. Gero, bigarren aldiz aterako da plazara "Tatti". Alfaroko errektadoreek emango diote amaiera

jaialdiari, iaz moduan. Landetako ohiko zezenketa eskainiko du erroixar taldeak. Mautsixa txarangak alaituko du giroa eta "Plantilleritoren pasodoblea" entzuteko aukera izango da. Bestalde, iazko jende arrakasta ikusirik 2.000 lagunentzako zezen plaza ekarri dute aurten, baina Eusko Jaurlaritzaren segurtasun araudiak direla-eta, 960 pertsona bakarrik sartu ahal izango dira plazan. Beraz, lehenbailehen sarrerak lortzea komeni da. Hilaren 17tik daude salgai (2 euro) Usua, Kaia eta Ibai Ondo tabernetan.

Haurrentzako entzierroa

Xixilionen jarriko den zezen plaza aprobetxatuz, haurrentzako entzierroa antolatu dute antolatzaileek domekan, maiatzaren 25ean. Goiko Errotako zubitik hasiko da entzierroa goizeko 10:30ean eta zezen plazan bukatu. Zezen enbolatuen txanda izango da ondoren, eta baita arratsaldeko 17:30ean ere, zalditxo eta zezentxoekin gozatzeko aukera izango baitute herriko gaztetxoek.

Partaidetza handia izan zen Liburutegiko IX. marrazki et9 idazlan lehiaketan



400 lanetik gora aurkeztu ziren Liburutegiko IX. marrazki eta idazlan lehiaketara; 271 marrazki eta 130 idazlan, hain zuzen ere. 1. mailatik 4. mailara arteko ikasleek marrazki lehiaketan hartu zuten parte, eta 5. eta 6. mailakoek idazlan lehiaketan. Gaia, "Paristik natorren artista bat naiz ni"

izan zen, eta ikasle askok benetako artistak direla erakutsi zuten.

Joan zen maiatzaren 14an izan zen sari banaketa, eta ume mordoak bildu zen King-Kong azpian. Sari ugari banatu zituzten liburutegiko arduradunek, eta gero, bertan bildu ziren guztientzat gozokiak banatu zituzten.

IRABAZLEAK

Marrazki lehiaketa

1. Laura Peralta
Akzesit Haizea Beristain eta Maialen Arberas
2. maila: Elena Ferreiro
Akzesit Asier Agirregomezkorta
3. maila: Nerea Gurrutxaga
Akzesit Aitor Luna eta Tomas Azpeleta
4. maila: Kristina Arizmendiarieta
Akzesit Jone Larrañaga

Idazlan lehiaketa

5. Nerea Aiesta
Akzesit Ivan Tamayo
6. maila: Iigo Perez
Akzesit Marina Ortuoste eta Eva Jurado

206 lagunek hartu zuten parte Elgoibarko Mendi Itzulian

Egun zoragarriak inoiz baino herritar gehiago animatu zituen

Urtez urte gora egin du Elgoibarko Mendi Itzulian parte hartzen dutenen kopuruak, baina aurten marka guztiak hautsi ditu Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatzen duen itzulia. Duela bi urte 86 lagunek eman zuten izena, iaz 135ek eta 206 lagun animatu dira aurten!. Elgoibartarretaz aparte, donostiarrak, eibartarrak eta bizkaitarrak ere izan ziren. Morkaikoko arduradunek adierazi digutenez, "kalean jendeari entzunda partaide asko izatea espero genuen, baina ez horrenbeste. Zorionez, nahikoa janari izan zen denentzat, nahiz eta fruta eta antzerako batzuk erosi beharrean izan ginen egunean bertan". Guztiak ez zuten ibilbide guztia osatu, "batzuk Altxolatik trenean itzuli ziren eta izan zen San Migel gainetik Lekeitioko Ibilaldira joatea aukeratu zutenik ere. Gutxi gorabehera 175 lagunek

bukatuko zuten ibilbide guztia. Bazkaltzera 150-160 pertsona agertu ziren Merkatu Plazan". Bitxikeriarik ere izan zen, **Irukurutzetan Urretxuko Mendi Itzulia** (70 kilometrokoa) pasatzen zen toki berdinetik eta bi elgoibartarrek beraien markak jarraituz 5 minutu egin zituzten bide okerretik. Beste bi pertsona ere hizketan zihoazela bidegurutze batean despistatu eta Mendaron agertu ziren. Eguraldi zoragarria egin zuen domekan, nahiz eta Altxolatik Bioin baserrirako bidea eguerdi partean egitea tokatu



ZIGOR

Kalamuako gaina izan zen azken oztopoa mendizaleentzat.

zitzaienek gorriak ikusi, bero asko egiten baitzuen haizerik jotzen ez duen bailaratxo horretan. Kalamuako azken igoerak ere bat baino gehiago lagako zuen arnas estuka eta txisturik gabe, baina gustuko lekuan aldaparik ez, diote.

Ur parkea izango da zapatu honetan, Olaizaga Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak antolatuta Ur parkea izango da zapatu honetan, maiatzaren 24an, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan egun osoan zehar. Goizez sarrera dohan izango da Eskola Kirolean parte hartu dutenentzat eta bazkideentzat eta arratsalde, berriz, igerilekuko ohizko prezioak izango ditu ur parkeak. Ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30etara.

Denboralddi bikaina osatu du Iban Gonzalez txirrindulariak

Garaipen bat eta 3 hirugarren postu lortu ditu



Artxiboko argazkia.

Iban Gonzalez jubencil mailako Txirrindulari elgoibartarra denboraldi bikaina egiten ari da aurten, eta horren lekuko dira azkenaldian lortu dituen postu bikainak. Apirilaren 26an Zarautzko Udaberri Saria irabazi zuen Ciclos Iturriaga taldeko txirrindulariak. Alberto Costa eta Felipe Amarin portugaldarrak izan zituen arerio nagusiak proba honetan. Egun bat beranduago hirugarren postuan sailkatu zen Zumarragako Txirrindulari lasterketan. Lazkaoko XXVII. Lazkaumendi Sarian ere hirugarren postuan helmugaratu zen maiatzaren 3an. Azkenik, maiatzaren 4an jokatu zen Segurako Santa Kutz Sarian berriz ere hirugarren postuan sailkatu zen txirrindulari erregularra dela agerian utziz.

C.D Elgoibarko zuzendaritzak kargua lagako du ekainaren 5eko batzar orokorrean



Duela urtebete C.D. Elgoibarren ardura hartu zuenean urtebete gehiago bakarrik jarraituko zuela berak eta bere lantaldeak iragarri zuen Igor Palomino presidentek. Bere hitza betez denboraldi amaiera iritsi da eta ekainaren 5eko batzar orokorrean kargua lagako du. Palominok berak azaldu digunez, batzar orokorrerako

taldea zuzentzeko prest dagoen beste norbait agertzea espero dute, "prest egon litezkeen bazkide guztiei luzatu nahi diegu deia. Gure aldetik prest gaude interesatuta dauden guztiekin hitz egin eta klubaren egungo egoera azaldu eta izan ditzaketen duda guztiak argitzeko". Momentuz ez dela inor azaldu aitortu digu.

Elgoibartarrak finalerdietarako sailkatu dira Debarroko Txapelketan

Debarroko Pilota Txapelketaren lehen fasea, ligaxka eran jokatu ohi dena, alegia, bukatu berri da. Lagunak Pilota Eskolako pilotariak fin aritu dira eta kadete eta jubenil mailako bikoteek finalerdietarako sailkatzea lortu dute. Datorren martitzenean, hilaren 27an, jokatuko dituzte joaneko partiduak Ikastolako frontoian, iluntzeko 19:30etatik aurrera. Portu eta Txurruka bikotea arituko da kadete mailan lehendabizi eta Ulazia eta Iriondok osatutako jubenil mailako bikotea ondoren.

"Lagunak" Banakako Pilota Txapelketa

Bestalde, urtero jokatu ohi den "Lagunak" Banakako Pilota Txapelketa hasia da jadanik. Lagunak Pilota eskolako antolatzen duen txapelketan benjamin



aurreko, benjamin, infantil eta kadete mailako pilotariak hartzen dute parte. Partiduak Plaza Handiko frontoian jokatzen dira.

EMAITZAK

Futbola

Aretxabaleta 2 - Haundi 1 (Pref.)
Aurrera Ondarroa 2 - Elgoibar 5 (1. erreg.)
Elgoibar 1 - Zumaiako 2 (Jub.)
Billabona 4 - Elgoibar 1 (kad.)
Elgoibar 1 - Lengokoak 0 (Inf.)
Eibartarrak 2 - Elgoibar 2 (Neskak)
Zumaiako 4 - Pedrusko 2 (1. erreg.)

Esku pilota

Debarroko txapelketa

Euskal Jolas 12 / Lagunak 22
Euskal Jolas 9 / Lagunak 22
Atxotegi/Garate 3 (Ozkarbi) - Portu/Txurruka 22
Rodriguez/Txurruka 12 (Ozkarbi) - Ulazia/Iriondo 22
Ubera/Arrieta 22 (Ozkarbi) - Alzibar/Loiola 5

Lagunak txapelketa

J.Cid 7 / B.Iriondo 18 (Benj.)
I.Amesti 18 / M.Gurrutxaga 6 (Benj.)
J.I. barluzea 11 / E.Guemez 18 (Benj.)
J.Tabira 9 / I.Txurruka 18 (Benj.)
A.Gabilondo 18 / A.Gurrutxaga 12 (Benj.)
E.Salegi 7 / J.Zubizarreta 18 (Inf.)
LArrieta 18 / J.Agirrebeña 12 (Inf.)
I.Txurruka 18 / A.Guemez 9 (Kad.)
J.Mugerza 15 / I.Ugalde 18 (Kad.)
A. Gurrutxaga 18 - J. Ibarluzea 4 (Benj.)
I.Txurruka 18 - A. Gabilondo 16 (Benj.)
LArrieta 18 - H. Arribillaga 16 (Inf.)
J. Agirrebeña 18 - A. Larrañaga 9 (Inf.)
A. Lizarralde 18 - E. Salegi 6 (Inf.)

Idarraga kafeak 6. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 02/03

JOKALARIA	PUNTUAK
1- Elkoro	51
2-I. Gurrutxaga	47
3- Gotzon	40
4- Arenas	35
5- Igartua	35
6- Izagirre	29
7- Loren	26
8- Jakes.....	25
9- Guinea.....	21
10- Bravo	20
11- Caro	19
12- Iraitz Ugalde	14
13- Kepa	14
14- Gomez.....	12
15- Navarrete.....	11
16- Ibai Glez.	9
17- Tarragual	7
18- Duarte	6
19- Jon Ander	6
20- Leonardo	5
21- Elustondo	5

AGENDA

Futbola, Mintxetan

24, zapatua

16:30 Haundi - Pasajes (Pref.)

25, domekia

10:30 Elgoibar- Ermua (Aleb.)

12:00 Elgoibar - Billabona (Aurre Inf.)

Langai

Euskal Lan Zerbitua

Durangoaldeko enpresak **2 erizain** behar ditu. **Erref. 102301/1**

Durangoaldeko enpresak **pintorea** behar du. **Erref. 101953/1**

Durangoaldeko enpresak **2 erizain laguntzaile** behar ditu. **Erref. 102300/1**

Durangoaldeko aldi baterako enpresak **metalerako peoia** behar du. **Erref. 101702/4**

Durangoaldeko enpresak **hozkailu muntatzaile** behar du. **Erref. 101555/4**

Debabarreneko enpresak **aire egokitua instalatzeko pertsona** behar du. **Erref. 97505/7**

Eibarko aldi baterako enpresak **metalerako peoia** behar du. **Erref. 101753/3**

Debabarreneko aldi baterako enpresak **enpresaritzan lizentziatua** behar du. **Erref. 101804/5**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

lana

ESKAERA

• Emakumea bulegoak, lantegietako aldagelak edo bulegoak garbitzeko prest. Garbiketari dustrialean esperientziaduna. z. **669 22 35 27**

• Etzerako era guztietako konponketak egiten ditut. **Tr 943 03 36 41/666 24 16 62**

Emakumea etxeak garbitu, haurrak edo adinekoak zaintzeko prest. Egun erdiz. **Tr 639 88 20 04 (Piedad)**

* 17 urteko hiru neska ekainetik aurrera, goizez, umeak zaintzeko prest. **71. 656 00 83 19**

Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. **ir 626 91 49 04 (Rosa)**

• Emakumea nagusiak, edo 10 urtera arteko haurrak zaintzeko prest. **Tr 943 74 30 03 (Elena Garcia)**

* Neska asteburuetan, jai egunetan eta udan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. **Tr 943 12 73 07/630 52 85 19**

* Emakumea edozein lan egiteko prest. a **660 69 53 03 (Marta)**

r Mutila buzzoneko lanak egin edo kartelak pegatzeko prest. **Tr 943 74 44 63**

* Mutila garbiketari lanak egiteko prest. **.17 943 74 44 63**

Emakumea lanerako prest. Tabernan, jatetxean, nagusiak eta haurrak zaintzen esperientzia daukat. **Tr 630 725 244**

• Emakumea orduka garbiketari lanak egiteko prest. **Tr 943 74 22 01 (Araceli)**

Emakumea gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. **Tr 943 03 03 21 (Mertxe)**

ESKAITZA

Pertsona arduratsua eta lanerako gogoa duena behar da Osintxuko jatetxerako. Asteburuak bre. **Tr 943 76 48 63 (Mari Jose eta Juana)**

Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetan jatetxean lan egiteko. **tr 943 12 12 62**

• Emakume gaztea edo adin erertainekoa behar da, Mendaron goizeko 8:00etatik 14:00etara umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **€ 943 75 52 06 (goizez)**

+ Asteleheneratik ostiralera etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Goizez, bi ordu egunero. **Tr 676 50 52 27**

Kamareroa behar da. **Tr 943 74 42 65**

• Asteburuetarako sukaldaria behar da. **1T 943 74 42 65**

Etxebizitzak

* La Pineda-n (Salou) 2 logeladun apartamentua alokatzen da, ekaina, uztailla eta irailean. Hondartzako lehenengo ildan. **Tr 660 05 62 19**

* Apartamentua alokatzen da Menokan. 4-6 pertsonentzako. Erabat konpletoa. **Tr 902 10 32 87**

* Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **7:1. 686 72 52 53**

* Logela alokatzen da...x **943 74 18 81**

Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariek. Bizitzera sartzeko moduan. **661 42 60 77**

Etxea salgai San Pedro kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Lora-tegi txikia. Eraberritzeko. **Er 609 49 27 36 (Pedro) 670 44 26 70 (Jose Mari)**

Etxea hartuko nuke alokairuan. **Tr 943 03 03 21**

Nafarroan, Lizarratik gertu dagoen landetxe batean logelak eskaintzen dira. **ze 699 18 75 68**

* Etxea salgai Elgetan. Eraikuntza berria, 90m². Sukaldea, jantoki-saloia, 3 logela, 2 bainugela. Garajea eta trastero handia. Sukalde eta jantokitik balkoira irteera. Izugarritzko bistak mendi aldera. **Tr 94 658 34 72/615 74 50 72 (15:00etatik aurrera. Josune)**

• Logela alokatzen da. **Tr 699 91 31 69**

Bestelakoak

+ Emakumezkoaren erlojua bilatu dut Madalan. **Tr 943 74 27 59 (Jose Inazio Iriondo)**

* San Pedroko kanpan lurtean jartzeko haur manta gorri bat utzi nuen ahaztuta joan den igandean. Jaso duenak deitu dezala. **609 05 59 02**

Neska txiki baten urrezko pultsera topatu dut. **Tr 943 03 38 31**

Maiatzaren 6an Festina markako erlojua galdu nuen Kiroldegian. Saritu egingo da. **Tr 943 74 20 31**

San Lorentzora bidean urre zuriko belarritakoa aurkitu dut. **Tr 943 74 24 34**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Partikularrak

Euskarazko klase partikularrak jasoko nituzke bakarka. **Tr 943 74 03 85**

Ingeles irakaslea enpresei eta nodpanakoei klaseak emateko prest. **Tr 649 22 11 54**

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleari matematika klaseak emateko pertsona behar da. Uztailean, goizez. **626 23 75 70**

Salerosketak

• Peugeot 205-1.8 diesel salgai. 1997. urtekoa. **Tr 655 74 80 07**

Edertasun saloia traspasatzen da Elgoibarren. **Tr 943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)**

– Hyundai Sonata 2.0 salgai. Egoera onean. **653 72 59 47**

Trialeko motorra salgai. Kawasaki KLE 500. Bi zilindro. Oso egoera onean. 22.000km. 2.400 euro. **11: 943 76 64 01/605 71 24 73**

Ezkongai soinekoa salgai. 300 euro. **a 666 76 22 95**

Tabernarako barra salgai. 120 euro. **Tr 666 76 22 95**

Tube eskapea salgai. Hyunday Coupe 2.0 (70 euro), kuprezko muelleak (60 euro) aurrekoak eta atzekoak, 4 zm. jaisten dute. a **666 76 22 95**

2. eskuko pianoa erosiko nuke. Egoera onean. **Tr 943 74 05 37**

Opel Vectra autoa salgai. Egoera onean. a **616 16 77 60**

Senar-emazte logela salgai. Konpletoa (ohea, armairua, mahaitxo...). Oso merke. a **943 74 20 30 (Lucia)**

Agurrak



Zorionak Mireia Garridori, maiatzaren 28an urteak bete-ko dituelako. Gurasoen, ahizparen eta amamaren partez.




Zorionak **Marina Torresi**, hilaren 24an 4 urte beteko dituelako. Aiton-amona, guraso eta osaba-izeben partez.



Zorionak **Elsa!** Potxoli, jada-rik 4 urte haundi. Denon partez muxu haundi bat.



Zorionak **Jonathan**, maiatzaren 25ean zure urtebetetze eguna delako. Hainbeste maite zaituen lehengusina Amaiaren partez.



Zorionak **Melani**, gaur, hilak 23, 11 urte bete dituzulako. Ama, amama eta osabaren partez.



Zorionak **amama Margarita** zure 95. Urtebetetze egunean, familiako guztien partez. Ongi pasatu asteburuan eta jarraitu orain arte bezala. Muxu handi bat denon partez.



Zorionak **Tamara**, maiatzaren 24an 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko gurasoen eta Aidaren partez. Ondo pasa!



Zorionak **Gorka**, hilaren 24an 4 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta anaia Ikerren partez.



Zorionak **Manoli**, igandean urteak beteko dituzulako. Julene, Olaia eta familiako guztien partez.



Zorionak **itziar**, hilaren 25ean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat zure lehengusu Gaizka eta familiako-en partez.



Zorionak **Haizea**, atzo, maiatzaren 22an, 4 urte bete zenituelako. Markel, gurasoen eta familiako guztien partez.



Zorionak **Amaia Palaciosi**, maiatzaren 25ean 7 urte beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki, Josuren partez. Muxu handi bat printzesa!



Zorionak **Enara Castrillejori**, hilaren 21ean 9 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Iera**, gaur, hilak 23, 4 urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki Ikerren partez.



Zorionak **mutil haundi!** Oso ondo bukatu 6 urte betetzen dituzun gaurko eguna. Muxu haundi bat etxeko guztien partez, eta beste bat Eider, Aitor eta Borjaren partez.



Zorionak **ama**, zure seme-alaban partez.



Zorionak **bikote!** Jarraitu orain arte bezain alai. Senide guztien partez, bereziki, amatxo eta Naiaren partez.



Zorionak **Carlos** eta **Monse!** Ondo pasatu zuen ezkontza egunean. Familiakoen partez.



✦ Zorionak **Jesus Mari** eta **Santia**.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
23 Ibañez	Ibañez
24 Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria
25 Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria
26 Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria
27 Fernandez	Fernandez
28 Yudego	Yudego
29 Zabafeta	Zabafeta
30 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

25 igandea Ibarrenea

23 BARIXAKUA

19:30 KONTZERTUA

Gasteizko Kanta Kantari Gazteen

Abesbatza

I. Bereziartua Musika Eskolako

Auditorioan

22:1 DANTZA IKUSKIZUNA

"Tres Tristes Stripteases"

Taldea: Damian Muñoz Danza

Herriko Antzokian

24 ZAPATUA

17:30 MAZZANTINI ZEZENKETA

Elgoibarko toriatzailiak: Jose Luis Arana

"Tati".

Ondoren, Alfaroko errektadoreak.

Zaldi munta: Iñigo Arrizabalaga.

Xixilion kalean (Sigma)

Antolatzailea: Luis Mazzantini txoko

taurinoa

25 DOMEKIA

9:30 ERLORA MENDI IRTEERA

Ikastolatik

Antolatzaile: Elgoibar Ikastola

11:00 HAURRENTZAKO

ENTZIERROA

Sigmako zubian hasi eta Xixilion kaleko

zezen plazaraino

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

17:00 ZEZENTXOAK ETA
POTTOKAK HAURRENTZAKO

"Muzzikiren bidaiari harrigartia"

POK produkzioak (3-12 urtekoentzat)

Herriko Antzokian

27 MARTITZENA

19:30 KURTZO BUKAERAKO

KONTZERTUA

I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

28 EGUAZTENA

19:30 KURTZO BUKAERAKO

KONTZERTUA

I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

29 EGUENA

19:30 KURTZO BUKAERAKO

KONTZERTUA

I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

30 BARIXAKUA

19:30 BEREZIARTUA MUSIKA

ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO

KONTZERTUA

Herriko Antzokian

22:30 HITZALDIA

"El humor en Galicia"

Hizlaria: Jose Antonio Vilaboa,

Gipuzkoako Caimada kofradiaren

lehendakaria

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Galiziako Etxea

JAIK

Euskal Eskola Publikoa

Euskal Eskola Publikoaren Aldeko 12. Jaia Lasarteko ipodromoan izango da ekainaren 1 ean, domekan. Herri Eskolak, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak bertara joateko autobusak antolatu dituzte. Izena eman nahi duzuenok maiatzaren 30era arte duzue epea. Herri Eskolan edo Elgoibarko Izarran eman daiteke izena 9 euroren trukean (Elkarteko bazkideek 6 euro eta umek 3 euro).

DANTZA

"Tres Tristes Stripteases"

Illamian Muñoz Danza konpainiak "Tres Tristes Stripteases" dantza ikuskizuna eskainik du gaur, hilak 23, Herriko Antzokian. Haritz Euskal Ilantzari Taldea eta Inazio Bereziarturi Musika eta Dantza eskolaren laguntza izango dute. Saioa gaueko 22:15ean hasiko da.

KONTZERTUAK

Kanta-Kantari abesbatza

Gasteizeko Kanta-Kantari abesbatza

(1txaropena abesbatzaren eskutik) kantaldil eskainiko du gaur, barixakua, 19:30ean Musiz Eskolako auditorioan. 11 eta 16 urte bitarteko 3] abeslarik osatzen dute taldea eta guztiak Gasteizeko Vedruna Musika Eskolako ikasleak Silvia Hernandez elgoibartarra da abesbatzazk zuzendaria eta Ana ortega arduratuko cli pianoaz. Guztira 13 pieza interpretatuko dituzte.

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren igandean, maiatzaren 25ean, Herrik (Antzokian). **Jose Antonio Osororet** zuzendaritzapean hortako pieza hauek jok(dituzte: "La Oreja de Oro" (M. San Miguel) "La Italiana en Argel" (G. Rossini), "Don Gil di Alcala (M. Penella), "Oregon" (J.de Haan) "Manbo Jambo" (Perez Prado). Saioa eguerdilo 12:30ean hasiko da.

I. Bereziartua Musika Eskola

Inazio Bereziartua Musika eskolako ikasleei kurtso bukaerako kontzertuak eskainiko dituzt maiatzaren 27, 28 eta 29an Musika Eskolako auditorioan 19:30etatik aurtera. Hilaren 30ear barixakuan, berriz, Kantu Korala, Inazi, Bereziartua Abesbatza, Akordeoi Taldea, Roc: Taldea eta Gazteen Banda arituko dira Herrik Antzokian 19:30can.



ste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak ekarri digu. Argazkian ageri den taberna, gaur egun Gorostiza liburu denda dagoen lekua da. Sarriguarte (Uribe) taberna izena zeukan garai hartan. Gutxi gorabehera 1955. urte ingurukoa da. Garai hartan oso taberna famatua zen gure herrian. Argazkian

ageri zaizkigunak oso gizon ospetsuak izan ziren Elgoibarren, eta ikusten denez oso umore onean azaltzen dira. Gogoratu ditzagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen diren gizon hauek:

Ezkerretik eskumara: Jose Luis Sarriguarte (tabernaria), Segundo Zeingotita "Patri" (T), Roman Igartua (t), eta Kristobal Alvarez (t).

LANGILEA BEHAR DA

LANGILEAREN ZEREGINAK:

Gazte Informazio Gunearen gestioa: gazteen jakin-min eta informazio eskaerei erantzun eta baliabideak eskaini.

ESKATZEN DA:

Euskaraz jakitea (ahoz eta idatziz)
Harremanetarako dohainak
Antolakuntzarako gaitasuna

BALORATUKO DA:

— Elgoibartarra izatea
— Interneten eskarmentua
— 20-30 urte artekoa izatea

ESKAITZEN DA: — Astean 16 orduko lan bolumena

Curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR
Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Nerea) / E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

izena emateko azken eguna: maiatzak 23



a+,,,xutaclanNalmb
AISI-LOI TALOKA

**UZTAILERAKO
BEGIRALEAK
BEHAR DITUGU**

**BIDALI CURRICULUM-A
MAIATZAREN 30erako**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
Ubitarte 4, behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 74 16 26 (Nerea)
E-posta:
atxubiamaiika@elgoibarkoizarra.com

2003/2004 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAITZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta kautxugintza

117

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Mekanizazioa (goizez eta gauez)
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administraritzta kudeaketa

Lan munduko sarrera azkenengo urteetan % 90tik gora.
Praktikak enpresetan eta atzerrian.
Harreman estuak inguruko enpresekin.
teknologia aurreratua.
Eskola publikoa:
integratzailea eta anitza

Ibargarai 1. • Bergara •

Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40 Faxa: 943 76 38 41

e-posta: imaltuna@sarenet.es

Web: www.imaltuna.com

Bulego orduak 9:00etatik 14:00etara

8e/994il' aio wT'6aalza n ATE IREKIAK kava
aihya / kUtzal 29, atMiraelleia 6dalt

flar-1--eiffat"/Zda &"a Z48,1Z/1(
el,a4rw-eff 2tit 771-a.

Hat"lieccia eicuircur ,30&tig aztalia"err 54.-a

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B a teorikoa 18 urte bete baino lehen eskuratzeko!

Ordenagal u bidez eona i aste o ge a berria!



ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etati k-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel 943 203 445 - 20600 EIBAR

Guk ere einbiou!



EUSKAL HERRIA aurrera!

ZUto determine7loo L')u[izatu